

ESTATUS POLITIKO BERRIA: ATARIA **Agirian jasotzeko kontzeptu berri batzuk**

2018.05.05

1.- EUSKAL HERRIAREN DEFINIZIOA

Euskal Herria, Europako herrien artean, identitate propioa duen herria da, berezko hizkuntza propioa eta ondare kultural eta juridiko-instituzionala dauka, historian zehar bizirik iraun duen ondare linguistiko, kultural eta juridiko-instituzional propioaren jabe da, eta geografikoki zazpi herrialdetan kokatuta dago, Europako estatu bitan- Espainian eta Frantzia- eta hiru erakunde esparrutan antolatuta dago: Euskal Autonomia Erkidegoa, Araba Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeak hartzen dituena; Nafarroako Foru Komunitatea, Nafarroako lurraldea hartzen duena eta Iparraldeko Hirigune Elkargoak kudeatzen duen lurraldea, Lapurdik, Zuberoak eta Baxe Nafarroak osatzen dutena. Hizkuntza, euskara, eta kultura propioak eta erkidego politiko bateko kide izatearen sena, bai eta aurrez aipatutako gainerako faktoreak ere, dira euskal identitate nazionala eraikitzen dutenak.

2.- ERKIDEGO POLITIKOA. IDENTITATE NAZIONALAREN AITORTZA

Historian zehar eutsi egin dion identitate soziokulturala duen Herri baten borondate demokratikoaren adierazpen juridiko-politikoak izango da Estatus Politiko berria; ezaugarri politiko propioak izango dituena, besteak beste nabarmentzekoa, erkidego politiko bereko, nazio bereko, kide izatearen sen guztiz zabaldua. Identitate nazional horrexen, bere naziotasunaren adierazpide gisa dagoeneko agerraldiak izan zituen 1936an eta 1979an, eta orain bere berritzeko gogoia berriro agerrarazten du, bere burua bizitza publikoaren eremu guztietan proiektatuz, errealitate globalizatu eta interdependente batean euskal gizartearen eskakizun eta beharretara egokitzeko. Euskal Herria nazio da zuzenbide konparatuan ezarritako parametro guztiak betetzen dituelako eta, gainera, hala aitortzen eta identifikatzen duelako bere biztanleriaren gehiengo batek.

3.- GERNIKAKO ESTATUTUA

Gernikako Estatutuak ekarri zuen Euskal Autogobernua finkatzea, erakundetzea eta herritarren bizitza kalitatea eta ongizatea hobetzea; eta ezberdinen arteko itun bat izan zen, garai hartako inguruabar historikoek eraginda askatasun osoz egiterik egon ez zen arren. Dena dela, ezin da ahaztu EAEko Autonomia Estatutua, 1979an Lege organiko bidez onartua izan zena, erabat garatu gabe dagoela eta osorik bete gabe geratu dela Espainian izan diren gobernu ezberdinek azken 39 urte hauetan alde bakarretik transferentzia prozesua eragotzi eta blokeatu dutelako. Estatutuaren betepena eskubide bat da, bai eta EAEko hiritargoak emandako agindua ere; eta bere betepenak ez du inolako beste akordio edo inguruabarren mende egon behar.

4.- INDARKERIA POLITIKOA

Azken ehun urte hauetan, euskal gizarteak, gutxienez, lau esperientzia traumatiko bizi izan ditu indarkeriak eraginda: Guda Zibila, diktadura frankista, ETAren terrorismoa eta legearen kontrako kontraterrorismoak. Elkarrengandik ezberdinak diren arren, lau horiek gauza bat partekatzen dute: bidegabeki pairatutako sufrimendua eta, inguruabarrrik okerreanean ere, elkarbizitza demokratikoa eta giza eskubideen defentsan, bakean eta askatasunean oinarritutako euskal gizartea eraikitzeke eta aldezteko egin den esfortzua. Balore horiek helmen handiko ondare demokratikoa dira eta Estatus Politiko hau inspiratzen dute euskal hiritargoaren bizikidetzak eta bere botere publikoen eskubide eta betebeharren katalogoa arautzen duen oinarritzko arauak den aldetik.

5.- ESTATUS POLITIKO BERRIA. ALDERDI SOZIALETAN SAKONTZEA: EUSKAL HIRITARGOAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ZABALTZEA

Euskal gizarteak bere itun soziala eta bere autogobernua eraberritzeko baldintza material eta sinbolikoak betetzen ditu, aurrerapen sozial eta demokratikoa egitera begira (21. orrialdea 2017.10.17). Hobeto bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko akordio berria planteatzen dugu, gizarte moderno, anitz, berdintzaile eta kohesionatua eraikitzeke bidean aurrera egin dezagun. Emakume eta gizon askeek, berdintasun osoz elkarrekin bizi diren eta erabakitzen dutenek, osatutako gizartea, etorkizunaz arduratua, oinarritzko eskubide eta betebeharrekin hitzemandak, XXI. mendeko munduan eta Europan bizitzeko baldintza egokienak izan ditzagun.

6.- ESKUBIDE HISTORIKOAK

Eskubide historikoen titularra Euskal Herria da eta bere nazio nortasunean oinarritzen da aitortzen zaion errealitate juridiko-instituzionala. Testu artikulatuak aurrera egiteko urratsak eman beharko ditu Gernikako Estatutuak babesten eta errespetatzen dituen eskubide historiko horiek eguneratzeko prozesuan, Gernikako Estatutuak eta Estatuko legedi arruntak gauzatu duen eguneratzea finkatuz eta hedatzea posible den eremu eta arlo guztietarantz hedatuz, bere interpretazioa gure autogobernua blindatzeko eta finkatzeko eta Euskal Herriari oinarri konstituzionala emango dioten maila berrietara hedatuz, Estatuarekin harreman eredu berri bat egituratzeko, elkarrenganako errespetuan eta aitortzan oinarrituta, konfederala.

7.- LEGEZKOTASUN-PRINTZIBIOA. PRINTZIBIO DEMOKRATIKOA. ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Gaur egun, Estatus Politiko Berria egituratzeko lan honek erantzuten dio Euskal Herriak, bere Eskubide Historikoak eguneratzera begira, Konstituzioan eta Estatutuan egin behar duen erreformari. Eskubide Historiko haien adierazpenik hurbilena dugu duela 40 urte egin zen Gernikako Estatutuan. Euskal Herriak bere Eskubide Historikoak

eguneratzeko prozesuan sakontzeko beharra sentitzen du, Estatuarekiko harremanaren ikuspegi berri batekin, gaitasun berriak ahalbidetzeko orduan erkidego bereizia den aldetik, errealitate globalizatu, lehiakor eta interdependente honetatik planteatzen zaizkion erronkei aurre egiteko, aldi eta neurri berean barne kohesioa, bereizketa lehiakorra eta lankidetzaz erreklamatzeko zaiolarik.

Erabakitzea, gaurkoa moduko mundu konplexu eta interdependentean, elkarren artean erabakitzea da. Eta erabaki orok behar ditu erabakia hartzeko lana partekatzen dutenen arteko aitortza, erantzunkidetasuna eta elkarrekiko exijentzia. Horregatik, hain zuzen, gizarte anitzek, estatu erkidegoek edo estatu azpiko erkidegoek, beren barne aniztasuna elkarrekin erabakitzeke mekanismoen bidez egituratzen dute; era hitzartuan baino, aldarazi ezin diren lotura adostuak ezarriz.

Euskal Herriaren borondatea (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Herrialde Historikoen erabaki aske bidez adierazitakoa) eta bere historiaren poderioz dagozkion Eskubide Historikoak (Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria eta Gernikako Estatutuaren xedapen bakarra) izango dira, hurrenez hurren, Estatu Politiko berrirako proposamena egiteko oinarria eta eramailea. Dena dela, legezkotasunari zor zaion begiruneak ez du printzipio demokratikoa urratzerik ekarri behar. Printzipio honek exijitzen du euskal hiritargoaren erabakiari lehen mailako balio esanguratsua ematea. Gakoa da, beraz, euskal emakume eta gizonek beren borondate kolektiboa adierazteko eta egikartzeko duten eskubidea aitortzea, borondatez adostutako elkarbizitza formulak baliatzeko eta adostuko diren konpromisoak errespetatuak izango direla bermatzeko mekanismoak ezartzeko.

8.-SUBJEKTU JURIDIKO-POLITIKOA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeak Euskal Herriaren parte dira, zeina bere Eskubide Historikoak garatzen eta eguneratzeko prozesuan dagoen, eta hiritarren erabaki aske eta demokratikoan oinarrituta honela egituratzen da:

Subjektu Juridiko-Politiko instituzionala: Proposamenak

- Euskal Estatu Erkidegoa
- Euskal Foru Erkidegoa (Eskubide Historikoak eta foraltasuna hartzen ditu erreferentziatuz)
- Euskal Erkidego Nazionala (Euskal Herriaren identitate nazionala nabarmentzen du)
- Euskal Estatu Autonomoa (1931eko Estatutu- proiektuan erabilitako definizioa, hainbat alderdik proposatu dituzten eredu federal edo konfederalen kontzeptua ekartzen digu gogora)
- Euskal Foru Estatu (estatu kontzeptua eta gure foraltasun historikoa uztartzen ditu, une honetan eguneratu nahi dena)

9.- LOTURA ESPAINIAKO ESTATUAREKIN

Estatuarekiko harreman eredu berria eratuko da, elkarrenganako errespetuan eta elkar aitortzeko ereduan oinarrituta, konfederala. Espainiako estatuarekin ezarriko diren harremanetarako marko politikoa Espainiako Konstituzioaren 1. Xedapen Gehigarriaren eta Gernikako Estatutuaren Xedapen Gehigarri Bakarraren babespean egituratuko da, harreman eredu berezi eta aldebikoa ezarriko da eta harreman horren oinarria izango da parte biek elkar aitortuko dutela subjektu politiko gisa. Elkar errespetatzeko harremanak izango dira eta ez da euren arteko mendetasunik egongo, eta xede horrekin ezarriko da alde biko harremanetarako sistema, euskal autogobernua blindatuko duen bermeen sistema.



Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldea
Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos

